

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ALDAMAR 16



Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1886
Ez dago jatorrizko proiektuaren planorik Udal Artxiboan

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin, arin atzeraemandako bi jasodura (lehenengoa ere 1886koa eta bigarrena 1946koa) eta estalkiaren azpian oin bat (1946koa) dituena. Harlanduzko fatxada. Proiektu komuna Aldamar 14rekin.

Babes erregimena.

1. Erregimen orokorra.
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa; babes erregimen hori, oro har, eraikinaren egungo konfigurazioari lotuta ulertuko da.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baioen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorak: harlanduzko elementuak.
 - C. Esku hartzeko irizpide zehatzak: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.